G) 2022ko hasierako amortizazio metatua/Amortización acumulada saldo inicial ejercicio 2022	9.232,80	288.091,53	277.566,00	250.000,00	824.890,33	
Zuzkidura/ Dotación del ejercicio	56,70	15.599,82	3.252,48	100.000,00	118.909,00	
H) 2022ko bukaerako amortizazio metatua/ Amortización acumulada saldo final ejercicio 2022	9.289,50	303.691,35	280.818,48	350.000,00	943.799,33	
2021 ekitaldiko bukaerako netoa/ Neto final ejercicio 2021	224,28	27.825,93	13.008,88	297.770,80	338.829,88	
2022 ekitaldiko bukaerako netoa/ Neto final ejercicio 2022	167,58	108.663,72	9.756,40	150.000,00	268.587,70	



Ibilgetu materialaren ondasunen osotasuna Donostiako Udalaren edo beste erakunde publikoen diru laguntzen ondorio dira, salbuespen bat izan ezik. Alta bat egon zen 2019ko ekitaldian Richard Serraren obra baten 5 urtetarako doako erabileraren lagapenari dagokiona eta 500.000,00 eurotan balioztatu dena hain zuen ere (ikus 12. oharra).

Guztiz amortizatuta dauden ondasunen zenbatekoa 535.998,87 eurokoa da (534.982,72 eurokoa 2021ean), aplikazio informatikoak eta digitalizazioak direnak

La totalidad de los bienes de inmovilizado intangible, se encuentran subvencionados por el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián o por otros Organismos Pùblicos, a excepción del alta producida en el 2019 por 500.000,00 euros que corresponde a la valoración realizada de la cesión de uso efectuada de manera gratuita a la entidad de una obra de Richard Serra por un período de 5 años (ver nota 12).

Existen bienes totalmente amortizados, correspondientes a aplicaciones informáticas y digitalizaciones por importe de 535.998,97 euros (534.982,72 euros en 2021).

(7) Errentamendu operatiboak

Erakundeak errentari moduan jarduten duen errentamendu operatiboak ditu, ondorengoa dirlarik:

(7) Arrendamientos operativos

La Entidad cuenta con arrendamientos operativos, en los que ejerce como arrendatario por diversos alquileres:

Kontzeptua/ Descripción	Saldo/a Saldo 31/12/2022	Saldo/a Saldo 31/12/2021
Eraikinen alokairua/ Alquiler de edificios	94.763,13	109.818,00
Eginkunetarako eraikinen alokairua/ Alquiler edificios para eventos	4.776,02	8.729,61
Ekipamendu eszenikoen alokairua/ Alquiler equipamientos escénicos	283.346,31	143.094,58
Renting alokairua/ Alquiler - Renting	40.459,46	40.483,31
Tekniko, ikus-entzunezko eta musical tresnen alokairua/ Alquiler de Equipos técnicos, audiovisuales y musicales	187.361,65	35.578,44
Eginkizunetarako beste alokairuak/ Alquiler para eventos - otros	261.213,29	144.883,69
	871.919,86	482.587,63

Ekidaldiaren itxieran Erakundeak errentatzaileekin ondorengo alokairu kuotak ditu contratututa, indarrean dauden kontratuei jarraiki eta beti ere gastu amankomunen eragina, KPlarenengatik izan daitezkeen etorkizuneko igoerak eta kontratuetan itunduta dauden errenten etorkizuneko eguneratzea kontuan izan gabe:

Al cierre del ejercicio la Entidad tiene contratadas con los arrendadores las siguientes cuotas de arrendamiento mínimas, de acuerdo con los actuales contratos en vigor, sin tener en cuenta repercusión de gastos comunes, incrementos futuros por IPC, ni actualizaciones futuras de rentas pactadas contractualmente:

Gutxienekeko Kuotak/ Cuotas mínimas	2022ko balio nominala/	2021eko balio nominala/
	Valor nominal 2022	Valor nominal 2021
Urtebete baino gutxiago/ Menos de 1 año	42.883,92	42.883,92
1 eta 5 urte bitartekoak/ Entre 1 y 5 años	171.535,68	171.535,68
5 urte baino gehiago/ Más de 5 años	530.688,51	573.572,43
Guztira/ Total	745.108,11	787.992,03

Aldi berean, errentatzaile moduan jarduten duen utzitako errentamendu operatiboak ere baditu, hirugarrenei instalazioen erabilpen lagapenagatik, 2022 ekitaldian 41.791,44 euroko (5.049,00 euro 2021ean) sarrerak izatea suposatu dutelarik.

Igualmente cuenta con arrendamientos operativos en el que ejerce como arrendador, por la cesión de uso de sus instalaciones a terceros para la organización de eventos, que han supuesto ingresos durante el ejercicio 2022 de 41.791,44 euros (5.049,00 euros en 2021).



(8) Taldeko erakundeetan inbertsioak

Erakundeak 2022 eta 2021eko abenduaren 31n taldeko erakundeetan dituen partaidetzen kopuruak ez du aldaketarik izan aurreko ekitaldiarekiko:

	Inbertsioak/ Inversión	Helbidea/ Domicilio	% Partaidetza/ % Participación
Victoria Eugenia Antzokia, S.A.	89.669,00	Gipuzkoa	%100
San Telmo Museoa, S.A.	66.966,80	Gipuzkoa	%100
Inbertsioa guztira/ Inversión total		156.635,80	

Erakunde hauek 2007ko abenduaren 31an eratu ziren aipatutako zenbatekotan baloratutako altzarien ekarpenaren ondorioz (12. oharra).

"Victoria Eugenia Antzokia, S.A."ren helburu soziala musika, dantza eta ikus-entzunezkoen antolaketa, sostengu eta aurrekoen zabaltzearekin erlazionatuta dauden programa eta ekintza kulturalen kudeaketa da.

Bestalde, "San Telmo Museoa, S.A."ren helburu soziala ondare kulturalaren antolaketa, sostengu eta zabaltzearekin erlazionatuta dauden programa eta ekintza kulturalen kudeaketa da.

Aipatutako erakundeen egoera balantzean azaltzen den informazio esanguratsuena hurrengoa da:

(8) Inversiones en empresas del grupo

El detalle de participaciones en empresas del grupo al 31 de diciembre de 2022 no ha variado respecto al ejercicio 2021 y es el siguiente:

	Inbertsioak/ Inversión	Helbidea/ Domicilio	% Partaidetza/ % Participación
Victoria Eugenia Antzokia, S.A.	89.669,00	Gipuzkoa	%100
San Telmo Museoa, S.A.	66.966,80	Gipuzkoa	%100
Inbertsioa guztira/ Inversión total		156.635,80	

Estas sociedades fueron constituidas el 31 de diciembre de 2007 por la Entidad mediante la aportación de mobiliario valorado en dichos importes (Nota 12).

El objeto social de Victoria Eugenia Antzokia, S.A. es la gestión de programas y actividades culturales relacionadas con las artes escénicas, la música, la danza y los audiovisuales, la organización, apoyo y difusión de las mismas.

Por su parte, el objeto social de San Telmo Museoa, S.A. lo constituye la gestión de programas y actividades culturales relacionadas con el patrimonio cultural, la organización, apoyo y difusión de las mismas.

Los principales datos que se desprenden del balance de situación de las Sociedades mencionadas son los siguientes:

	Kapital Soziala/ Capital Social	Erreserbak/ Reservas	Ekitaldiko emaitza/ Resultado del Ejercicio	-Eurotan/ Euros- Bazkideen ekarpenak/ Aportaciones de socios
2022				
Victoria Eugenia Antzokia, S.A.	89.669,00	-	(6.194.326,00)	6.194.326,00
San Telmo Museoa, S.A.	66.966,80	-	(4.232.492,08)	4.232.492,08
2021				
Victoria Eugenia Antzokia, S.A.	89.669,00	-	(5.317.395,77)	5.317.395,77
San Telmo Museoa, S.A.	66.966,80	-	(3.806.521,89)	3.806.521,89

(9) Aktibo finantzarioak

Finantza-aktibo guztiak, taldeko erakundeetan egindako inbertsioak (8.oharra) eta eskudirua izan ezik, "Kostu amortizatuko finantza-aktiboak" bezala sailkatzen dira.

(9) Activos financieros

La totalidad de los activos financieros, sin considerar las inversiones en empresas del grupo (nota 8) y el efectivo, se clasifican en "Activos financieros a coste amortizado".



Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoko lehendakariak, 2023ko martxoaren 29an, 2022ko Abenduaren 31n amaitutako Urteko Kontu (egoera balantze, galera eta irabazien kontuak, ondare garbiaren aldaketen egoera, dirtuzaintza-fluxuen egoera, eta memoria) eta kudeaketa-txostenetan, hauek aurkezten dituzte, 32 orrialdez osatuta daudenak, 1etik 32ra bitartekoak.

El Presidente de Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura con fecha 29 de marzo de 2023, formula las presentes Cuentas Anuales (balance de situación, cuenta de pérdidas y ganancias, estado de cambios en el patrimonio neto, estado de flujos de efectivo y memoria) y el informe de gestión de la Entidad correspondientes al ejercicio anual terminado a 31 de diciembre de 2022, que comprenden 32 páginas numeradas de la 1 a la 32.

Donostian, 2023ko martxoaren 29an

San Sebastián, a 29 de marzo de 2023

Eneko Goia Laso



Lehendakaria

Eneko Goia Laso

Presidente



2022 EKITALDIKO KUDEAKETA TXOSTENA

INFORME DE GESTIÓN DEL EJERCICIO 2022



Bigarren adierazlea, 2022an izandako bisiten kopurua: **660.629** bisita izan ziren, % 24 gehiago. Hala ere, oraindik urrun gaude pandemia aurreko kopuruetatik. 2019an baino % 10,8 mailegu gutxiago eta % 21 bisitari gutxiago izan genituen 2022an.

Hirugarren adierazlea, liburutegi-sarearen jarduerak, oso asegarria izan zen. Jarduera-kopurua: **1.463**, eta etorritakoak: **29.120**. Pandemiaren bigarren urte honetan, jardueren programazioaren ezaugarrizko zirenen edukiera guztia bere onera etortzea eta zerbitzu guztia aurrez aurrekoak izatea. Literatur solasaldietan, gorde egin zen online formatuaren aukera, *streaming* bidez, baina oso konexio gubtxirekin. Aurrez aurreko nagusitu zen. *Liburu Baby Kluba* jarduera, 0 eta 3 urte arteko haurrentzat, liburutegi guztietara itzuli zen.

Liburuaren Egunean, apirilaren 23an, berriro egin zen Gipuzkoako Plazako azoka, aurreko bi urteetan ez egin ondoren. Liburu-saltzaileak kalera itzuli ziren beren standekin, Donostia Kulturaren diru-laguntzari esker.

2022an, **Pío Baroja** idazle donostiarren jaiotzaren 150. urteurrena izan zen, Espainiako 98ko belaunaldiko literaturaren adierazle batena. Donostia Kulturak zenbait jarduera programatu zituen haren oroigarri.

Poesialdia martxoan egin zen (21-25), Poesiaren Egunaren inguruan, zeina martxoaren 21a baita. Egun horietako batean ezagutarazi zen nork irabazi zuen Donostia Kulturaren Gazteentzako Poesia Saria. Izaskun Igoa Jaímerena izan zen sariaren V. edizioaren irabazlea, *Hotza bazkatzen* lanarekin. 1.000 euro eta obra Balea Zuria argitaletxeak kaleratzea, horra zertan den saria.

Poesía eta Pentsamendua errexitala ekainean egin ohi da, eta tradizio luzea du. Hamabosgarren hitzordu poetikoa ekainaren 13 eta 14an egin zen. 13an, Chillida Lekun,, 14an, Klub Aretoan. 2022an, hamabosgarren edizioa zela eta, *Berriro igo nauzu: hamaika poetika labur / Once poéticas breves* liburia argitaratu zen. Ekitaldiaren irudia Imanol Larrinagari zor zaio. Azkenik, Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoan, *Poesía Orduak* ekitaldia egin zen.

Beste urte batez, Emakume Idazleen Topaketa egin zen. Dagoeneko baditu 34 edizio nazioarteko topaketa honek. Samira Negrouche, frantsesez idazten duen idazle aljeriarra, eta Juana Salabert, eleberrigile eta literatur itzultzalea, izan ziren gonbidatuak. Luisa Etxenike idazleak koordinatu zuen topaketa.

El segundo indicador, el número de visitas recibidas en 2022: **660.629**, con un incremento de 24%. Sin embargo, todavía se está lejos de las cifras anteriores a la pandemia, respecto al año 2019: 10,8 % menos préstamos y 21% menos visitantes

El tercer indicador, las actividades propias de la red de bibliotecas fue también satisfactorio. Número de actividades: **1.463** y los asistentes: **29.120**. La programación de actividades durante este segundo año de pandemia se caracterizó por la recuperación de todos los aforos y de todos los servicios de forma presencial. Las tertulias literarias mantuvieron la posibilidad del formato online, por streaming, pero con muy pocas conexiones. Se impuso lo presencial. La actividad *Liburu Baby kluba* para niños de 0-3 años volvió a todas las bibliotecas.

El Día del Libro, 23 de abril, se recuperó la feria de la Plaza de Gipuzkoa, después de dos años. Los libreros volvieron con sus stands a la calle, gracias a la aportación económica de Donostia Kultura.

En 2022 se cumplieron 150 años del nacimiento del escritor donostiarra **Pío Baroja**, uno de los exponentes de la literatura de la generación del 98. Donostia Kultura realizó distintas actividades para recordarle.

Poesialdia se celebró en el mes de marzo (21-25), en torno al Día de la Poesía, que es el 21 de marzo. Se dio a conocer en estas fechas a la ganadora del Premio de Donostia Kultura de Poesía para jóvenes. Fue Izaskin Igoa Jaímerena quién ganó la V edición del premio con su obra *Hotza bazkatzen*. El premio fueron 1000 euros y la publicación de la obra por la editorial Balea Zuria.

El recital de **Poesía y Pensamiento** tiene lugar en el mes de junio y cuenta con una larga tradición. La decimoquinta cita poética se celebró los días 13 y 14 de junio. El día 13 en Chillida Leku. El día 14 en la Sala Club. Este año con motivo de la celebración de la decimoquinta edición, se publicó el libro *Berriro igo nauzu: hamaika poetika labur / Once poéticas breves*. La imagen del evento fue de Imanol Larrinaga. Por último, se celebró en la Sala Club del Teatro Victoria Eugenia, *Poesía Orduak*

Un año más se celebró el **Encuentro de Escritoras**. Son ya 34 ediciones de este encuentro internacional. **Samira Negrouche**, poeta y escritora argelina en lengua francesa y **Juana Salabert**, novelista y traductora literaria, fueron las invitadas. La escritora **Luisa Etxenike** fue la coordinadora del encuentro.



Literaktum diziplinarteko topaketa bat da, non erakusketak eta antzerkia ere izaten baitira. Urtez urte egiten den literatur jaia. Donostiako Literatura Jaialdiaren beste edizio bat. 2022an, gai nagusia bi hizkuntza desberdinen arteko lotura izan zen: *literatura eta zinema*. Beste ardatza Pío Baroja idazlea izan zen, jaiotzaren 150. urteurrena betetzen zela-eta. Pío Barojak ere izan zuen bere lekua Literaktumen, *Baroja y yo* solasaldian.

Literaktum Txikik ere oso ondo funtzionatu zuen. Ipuin-kontalariak, haurrentzako antzerkia, txotxongiloak eta Haurren Egun Unibertsalaren jaia izan zituen. Ilustrazio-lehiaketa *Txano eta Oskar* liburu-sailaren inguruan egin zen, eta ondorengo festan sariak eman ziren.

2022an, hiriarentzat hain garrantzitsua den **Donostia Hiria Kutxa Literatur Sariak** 56. edizioa egin zen, eta ekitaldia jaialdiaren programazioan sartu zen. Gala azaroaren 19an egin zen, Antzoki Zaharrean.

FESTAK

Festei dagokionez, 2022. urtea **Sortaldeko Errege Magoak** Donostiara etortzearekin hasi zen. Bi urtez Erregeen etorrerak pandemia zela-eta gorabeherak izan ondoren, Erregeen bisitarekin lotutako jarduerak ia betiko normaltasunaz egin ahal izan ziren.

2021aren hondarrean, gure hiriaren egun handia berriro ospatzeko asmoa zuten donostiar guztiek gogoan bazeen ere, azkenik, **Udalak**, helduen eta haurren danborraden ordezkariei entzun ondoren, erabakia hartu zuen, "zaila sentimenduaren aldetik, baina nahitaezkoa osasunari zegokionez", eta erabaki zuen ez zela danborradarik izango pandemia aurretik ezagutzen genuen eran, eta ez zela antolatuko banderaren altzatzerik eta jaisterik Konstituzio Plazan.

Haur Danborradaren kasuan, Donostiako Udalak, haur danborrada batzuen eta besteen iritziak entzun ondoren, eta elemento simboliko gisa, erabaki zuen ezen Haur Danborradako konpainiek, hala nahi izanez gero, ohikoa ez zen modu bateko desfilea egin ahal izango zutela: bost "danborrada" txikitán banatu zen eta, ikastetxeen kokapenaren arabera, gure hiriko auzoetako kaleetan zehar desfilatu zuten.

Otsailaren 19an, larunbatearekin, eta **Hungariako Kaldereroen Konpartsa Tradicionala** aurreko urtean Donostiako Parte Zaharreko kaleetan barrena ibili ez zelarik, ekin zioten Parte Zaharreko kaleetan ibiltzeari, mailu eta zartaginei hotsa ateraz eta ohiko errepertorioko doinuak kantatuz, eta Konstituzio Plazan ezarri zuten kanpamendua.

Literaktum es un encuentro multidisciplinar, con exposiciones, teatro. Una fiesta de la literatura que se reivindica año tras año. Una nueva edición del festival de literatura de San Sebastián. Este año el tema principal fue las relaciones de dos lenguajes distintos, *Literatura y cine*. El otro eje central fue la figura del escritor Pío Baroja, 150 años de su nacimiento. Pío Baroja tuvo su recuerdo en Literaktum con la charla *Baroja y yo*.

Literaktum Txiki también funcionó muy bien, con actuaciones de cuentacuentos, teatro infantil, marionetas y la fiesta del día universal de la infancia. El concurso de ilustración versó sobre la obra de *Txano y Óscar* y la fiesta posterior con entrega de premios.

En 2022 se celebró la 56^a edición de los **Premios Literarios Kutxa Ciudad de San Sebastián** y se incluyeron en la programación del festival. La gala se celebró el 19 de noviembre en el Teatro Principal.

FIESTAS

Festivamente hablando, se comenzó el año 2022 con la llegada de **Sus Majestades los Reyes Magos de Oriente** a nuestra ciudad. Tras un par de años en los que la llegada de Sus Majestades se vio alterada por la pandemia, las actividades relacionadas con la visita de los Reyes Magos pudieron celebrarse casi con la normalidad habitual.

Aunque a finales del año 2021 las ilusiones por celebrar nuevamente el día grande de nuestra ciudad estaban en la mente de todas y todos los donostiarras, finalmente, el ayuntamiento, tras escuchar a las y los representantes de las tamborradas de adultos e infantil adoptó una decisión "difícil emocionalmente, pero sanitariamente necesaria" y decidió que no habría tamborrada tal y como la conocíamos antes de la pandemia y que tampoco se organizarían la izada ni la arriada en la plaza de la Constitución.

En el caso de la **Tamborrada Infantil**, el Ayuntamiento de San Sebastián, tras escuchar la opinión de las diferentes tamborradas infantiles y, como elemento simbólico, decidió que aquellas compañías de la Tamborrada Infantil que lo deseasen pudieran desfilar en un formato que no fuese el habitual: se dividió en cinco pequeñas "tamborradas" que, atendiendo a la ubicación de los diferentes centros escolares, desfilaron por las calles de los barrios de nuestra ciudad.

El sábado 19 de febrero y tras un año en el que la **Comparsa Tradicional de Caldereros de la Hungría** realizaron su periplo por las calles de la Parte Vieja haciendo sonar martillos y sartenes, entonando las diferentes melodías del repertorio propio y plantando su campamento en la plaza de la Constitución.



Pixkanaka normaltasunera itzultzeari esker, **Kresala Elkarteo Inude eta Artzainen Konpartsak** bere ohiko ibilbidea egin ahal izan zuen Donostiako kaleetan zehar. Hala ere, jarduera horretan pertsonen arteko distantzia gordetzen eta musuko erabiltzen saiatu ziren.

Handik astebetera, otsailaren 26an, larunbatarekin, eta Inauterietako larunbata ere izanik, **Antiguotarrak Euskal Dantza Taldea** konpartsak egin zuen ibilia Antiguako kaleetan barrena.

Covid-19 zela-eta, gure jaien egutegian urtebeteko hutsunea izan eta gero, Donostiako Inauteria ospatu ziren, otsailaren 24tik 28ra bitarte ospatu ere.

Aldaketa xume batzuk gora-behera programazioaren aldetik, pandemiaren azken arrastoek irauten zutelako (konpartsen aurkezpena ostiralera aldatu zen, 25era, eta larunbat-igandeetako konpartsen desfileak bitan banatu ziren, eta ohiko ibilbidetik eta Gros auzoko beste ibilbide berri batetik ibili ziren aldi berean), festarako gogoa eta konpartsen presentzia –hala Inauterietakoak nola historikoak– nabarmenduz joan zen gure kaleetan, eta jendeak ondo erantzun zien programaturiko jarduerei.

Berriro egin ziren konpartsen ohiko desfile banakakoak, zein bere auzoan, bai eta Inauterien ondoko ospakizunak ere Loiolako Erriberan eta Altzako Piñata Igandean, gehi Bidebietan egiten dena, eta halaxe eman zitzaien amaia Inauteriei, argi geratu zelarik konpartsakideen gogoa festaz gozatzeko.

18 su piztu ziren guztira hiriko beste hainbat lekutan, **San Juan bezpera eta udako solstizioa** ospatzeko.

2022ko Aste Nagusirako pentsatutako Jardueren programari dagokionez, esan dezakegu bere izana berreskuratu zuela, eta bere-break dituen jarduerarik gehienak berregin zirela.

Esaterako, Konstituzio Plaza berriro izan zen arratsaldeko programazioaren erdigunea, Txistularien Alarde tradicionalarekin hasi zen, eta Unión Artesanaren **Agur Astearirekin** amaitu, ahaztu gabe Donostiako lau talde (Goizaldi, Gero Axular, Eskola eta Arkaitz) eta atzerriko beste bi, zeinak oso ondo hartu baitzituen jendeak (Ukrainako Gorlitsa eta México Lindo mariachia).

La paulatina vuelta a la normalidad propició que la **Comparsa de Iñudes y Artzaizas de Kresala Elkartea** pudiera hacer su habitual recorrido por las calles de nuestra ciudad. No obstante, la actividad se realizó intentando mantener la distancia social y el uso de la mascarilla.

Una semana más tarde, el sábado 26 de febrero y coincidiendo con el sábado de Carnaval, fue la **Comparsa de Antiguotarrak Euskal Dantza Taldea**, la que realizó su salida por las calles de El Antiguo.

Tras un año de ausencia en nuestro calendario festivo motivado por el COVID19, los carnavales donostiarras se celebraron en nuestra ciudad del 24 al 28 de febrero.

Con ligeras variaciones en cuanto a la programación motivadas por la persistencia de los últimos coletazos de la pandemia (la presentación de las comparsas se trasladó al viernes 25 y los desfiles de comparsas de sábado y domingo se desdoblaron en dos y se desfiló simultáneamente en el recorrido habitual y un nuevo recorrido en el barrio de Gros) las ganas de fiesta y la presencia de las comparsas –tanto de las propiamente carnavales como de las históricas– se fue dejando notar en nuestras calles y el público respondió a las diferentes actividades programadas.

Se recuperaron los desfiles individuales de comparsas por sus respectivos barrios y las celebraciones post-carnaval con los desfiles conjuntos de **Riberas de Loiola, del Domingo de Piñata en Altza** así como el que se realiza en **Bidebietako** que pusieron punto final a un Carnaval en el que quedó patente las ganas de comparseras y comparseros por disfrutar de la fiesta.

Un total de 18 hogueras se encendieron en otros tantos puntos de la ciudad para celebrar la **vispera de san Juan y el solsticio de verano**.

En cuanto al programa de actividades confeccionado para la Semana Grande 2022 podemos decir que recuperó su esencia y se retomaron la mayoría de las actividades consustanciales a la misma.

Así, la plaza de la Constitución volvió a ser el centro neurálgico de la programación vespertina que dio el pistoletazo de salida con el tradicional Alarde de Txistularis y finalizó con el **Agur Asteari** de la Unión Artesana sin olvidar a 4 grupos locales (Goizaldi, Gero Axular, Eskola y Arkaitz) y dos grupos extranjeros que tuvieron gran acogida por parte del público (Gorlitsa de Ucrania y el Mariachi México Lindo).



Programaren beste jarduera nagusi bat, **Saguesko zabalunekoa**, non hainbat artistaren kontzertuak egin baitziren, hala nola **Gatiburena**, zeinak 18.000 lagun bildu baitzituen gutxi gorabehera (bera izan zen jendetxuena), bai eta **Zetak, La MODA, Izaro, Kiko Veneno&Ariel Rot eta Green Valleyrenak** ere. Zorixarrez, meteorologiak eta ateraz zuten haize indartsuak galarazi egin zuten **Ana Guerra** eta **Miticen** jarraitzaileek beren idoloekin gozatzea, bi kontzertuok bertan behera geratu baitziren.

Kirolaren arloan, 2022ko Aste Nagusia gogoan geratuko da azken urteetan eskaera handia sortua zuen lehiaketa bat martxan jarri zelako: 2022an jokatu zen lehen aldiz **Uliako Harria**, Igeldoko Harriaren antzera egindako lehiaketa bat, baina emakumeentzat.

Ferialak ohiko lekuetan kokatu zen, Urdaneta kalean eta Paseo Berrian, eta batak eta besteak bete-betean funtzionatu zuten, eguraldi txarrak jarritako arazoak gora-behera. Ferianteeek abesti ez-sexistik programatzeko konpromisoa bete zuten

Epai-mahai Oficialaren hitzetan, **Su Festen Nazioarteko Lehiaketaren 57. Ediziota** aurkeztutako bildumen maila handia izan zen, eta kalitateak gora egin zuen astean zehar, nahiz eta itzalen bat edo beste gertatu abuztuaren 17ko jauntiketak (Erresuma Batuko Fully Fused piroteknienak) bertan behera utzi behar izan zirelako 36 km/h-ko haizea zebilelako, bai eta 18koak ere (Turis valentziarrarenak), eguraldi txarragatik.

Aste Nagusiari eta Lehiaketari amaia ematen zion ikuskizun **piromusikala** oso txalotua izan zen. Erritmoa, koloreak, sinkronizazioa, aukeratutako soinu-banda eta are soinu-maila bera Aste Nagusiari bukaera ederra emateko modukoak izan ziren, eta gogoan geratuko da luzaroan.

Donostian 1813ko abuztuaren 31n gertaturikoak **gogoratzeko ekitaldiak** hitzaldi, film eta erakusketa batzuekin hasi ziren, abuztuaren 25etik 30era bitarte, San Jeronimo kaleko ekitaldi-aretoan.

Hilaren 31n bertan, **lore-eskaintza** tradicionala izan zen, zeina bigarren urtez segidan **Itsas Atean (Portaletan)** egin baitzen, eta agintariak eta danborraden ordezkariek izan ziren bertan, arratsalde hartanbe hartu baitzuten parte **oroitzapenezko desfilearen** karietara programaturiko ekitaldietan eta gazteluaren erasoaren eta hiriaren erreketaren **antzezpenean**. 21:30etan herritarren abuztuaren 31ko **prozesioa** egin zen, zeinaren bidez oroitu baitzen, kaleetako argiak itzalita eta kandelen argipean, hiriak bizi izandako tragedia hura.

Otro de los puntos fuertes del programa, el de la explanada de **Sagüés** acogió los conciertos de artistas como **Gatibu**, que contó con una audiencia de 18.000 personas aproximadamente y que fue el más multitudinario, **Zetak, La MODA, Izaro, Kiko Veneno&Ariel Rot y Green Valley**. Desgraciadamente, la meteorología y sobre todo el fuerte viento que se originó impidieron que los seguidores de **Ana Guerra** y de **Mitic** pudieran disfrutar con sus ídolos ya que ambos conciertos tuvieron que ser suspendidos.

En el ámbito deportivo, la semana Grande de este año se recordará por la puesta en marcha de una competición que venía siendo demandada desde años atrás: este año celebramos por primera vez la **Uliako Harria**, una competición a imagen y semejanza de la Igeldoko Harria en versión femenina.

El Ferial recuperó sus ubicaciones habituales en la zona de Urdaneta y en el Paseo Nuevo y, ambos dos, funcionaron a pleno rendimiento aunque con algunos altibajos por los contratiempos meteorológicos. Los feriantes cumplieron con el compromiso de programar canciones no sexistas

En palabras del Jurado Oficial el nivel de las colecciones presentadas a la edición número 57 del **Concurso Internacional de Fuegos Artificiales** fue alto y su calidad fue creciendo a lo largo de la semana, si bien se vio un tanto ensombrecido por la necesidad de suspender los disparos de las noches del 17 de agosto por la existencia de vientos de más de 36kms/hora (la pirotecnia del Reino Unido **Fully Fused** y la de día 18 (la valenciana **Turis**) en este caso por inclemencias meteorológicas.

El **espectáculo piromusical** que ponía fin a la Semana Grande y al Concurso fue largamente aplaudido. El ritmo, los colores, la sincronización, la banda sonora elegida e incluso el nivel sonoro marcaron un final de Semana Grande espectacular que se recordará durante mucho tiempo.

Los **actos en recuerdo** de los hechos acaecidos en nuestra ciudad el **31 de agosto de 1813** comenzaron con una serie de conferencias, películas y exposiciones que tuvieron lugar del 25 al 30 de agosto en la sala de conferencias de San Jerónimo.

Ya el mismo día 31 tuvieron lugar la tradicional **ofrenda floral**, que por segundo año consecutivo se realizó en la **Puerta de Mar (Portaletas)** y contó con la presencia de autoridades y de una representación de las tamborradas que esa misma tarde participaron en los actos programados en torno al **desfile conmemorativo y la recreación** del asalto al castillo y quema de la ciudad. A las 21.30 horas se llevó a cabo la **procesión cívica** del 31 de agosto que, con el apagón de alumbrado y a la luz de las velas, se conmemoró la tragedia vivida por la ciudad



2022ko estropadak egun hauetan egin ziren: abuztuaren 31n (gizonezkoen sailkapena), irailaren 1ean (emakumeen sailkapena), 4an (lehen jardunaldia) eta 11n (bigarren jardunaldia).

Trainero irabazleei ematen zaien Banderari dagokionez, 2022an berezitasun bat izan zuten, lazo bat **Juan Sebastian Elkano** getariar marinelak munduari emandako lehen biraren une historikoaren oroigarri.

Jendetza biltzeari jarritako murrizpenek agindu zuten bi urteen ondotik, normaltasunera itzuli ginen, eta bildutako jendetzaren kopurua ohikoa izan zen berriro.

Euskal Jaia Donostiarra abuztuaren 31tik irailaren 11ra bitarte egin ziren. Berriz ere jai-programaren ohiko eskemara itzuli ginen, non jarduera ezagunak izan baikenituen; **Sagardo Eguna**, esaterako, non Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko 38 sagardogileren sagardoa dastatu ahal izan baitzen, trikitilarien musikak eta Aitor Mendiluze eta Oihana Iguaran bertsolarien bertsoek girotuta. **Dantza Askatuko Lehiaketa** berriro egin zen Konstituzio Plazan, eta zortzi bikotek hartu zuten parte.

Lehen Mundu Biraren 500. urteurrena ere ospatu genuen **Elkanoren Eguna** delakoarekin, noiz-eta emankizun bat izan baitzen Kaian, **Easo Abesbatzaren** kantaldia eta **Kresala Dantza Taldearen Amoria & Dolore** ikuskizuna.

Abenduaren 21ean, asteazkenarekin, **Santo Tomaseko** azoka tradicionala egin zen; hiria baserri-giroko azoka bihurtu zen egun batez, eta txistorra izan zen protagonista, 166 postu jarri ziren guztira (fruta, barazkiak, gaztak, hestekiak, kontserbak, eztia, eskulanak...) jai-barruti guztian sakabanatuta.

Txistorra-, eztí-, barazki- eta fruta-, eta txorimalo-lehiaketak, eta gainera Baserritar Jantzie IV. Lehiaketa: horiek osatu zuten era guztietako jendearentzat egindako programa, non ez baitziren falta izan herri-kirola, abere-erakusketak, haurrentzako lantegiak, bertsolariak, eta abar, bai eta erromeria bat ere Boulevardean, jai-egunari buru emateko.

Beste sei auzok ere, dela aurreko egunetan, dela Santo Tomas egunean bertan, ospatu zuten azoka, zenbait jarduera antolatuta: **Amara Berri**, **Amara Zaharra**, **Antigua**, **Gros**, **Ibaeta** eta **Intxaurrondo**.

Las regatas de este año se celebraron los días 31 de agosto (clasificatoria masculina), 1 de septiembre (clasificatoria femenina), 4 (primera jornada) y 11 de septiembre (segunda jornada).

En lo que respecta a la Bandera que se entrega a las tripulaciones vencedoras, este año tuvieron la particularidad de contar con una lazada en la que se rememoraba el momento histórico de la primera circunnavegación al mundo por parte del marino getariarra **Juan Sebastián Elkano**.

Después de dos años en los que las restricciones a la presencia de público estuvieron presentes, volvimos a la normalidad y la asistencia del público fue normal.

Las Euskal Jaia a nuestra ciudad y que se celebraron del 31 de agosto al 11 de septiembre. Se volvió al esquema habitual del programa festivo y en él se dieron cita actividades como el **Sagardo Eguna** donde se pudieron degustar sidras producidas por 38 sidrerías de Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, amenizado con la música de los trikitilaris y los bertsolaris Aitor Mendilize y Oihana Iguaran. El **Concurso de Baile a lo suelto** volvió a su emplazamiento de la plaza de la Constitución;

También celebramos el 500 aniversario de la primera vuelta al mundo con el **Elkanoren Eguna** con una actuación en el Muelle con el **Coro Easo** y el espectáculo de **Kresala Dantza Taldea Amoria & Dolore**.

El miércoles 21 de diciembre se celebró la tradicional feria de **Santo Tomás**; la ciudad se convirtió por un día en un gran mercado rural teniendo a la txistorra como protagonista y con un total de 166 puestos (fruta, verdura, quesos, embutidos, conservas, miel, artesanía, ...) repartidos por toda la zona festiva.

Los concursos de txistorra, miel, hortalizas, verduras y frutas, espantapájaros además del IV concurso de trajes de baserritarra completaron un programa dirigido a todo tipo de público en el que tampoco faltó el deporte rural, la exposición de animales, talleres infantiles, bertsolaris, etc, y una romería en el Boulevard que puso fin a un intenso día festivo.

Otros 6 barrios, bien en los días previos o bien en el mismo día de Santo Tomás, se sumaron a la celebración de la feria organizando diferentes actividades: **Amara Berri**, **Amara Zaharra**, **El Antiguo**, **Gros**, **Ibaeta** e **Intxaurrondo**.



2022an, Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 24an iritsi ziren Donostiara, Aieteko Katxola baserrira hain justu ere. Handik auzoz auzoko bisita egin zuten. Udaletxera iritsi ondoren, gutunak Olentzerori eta Mari Domingiri eman nahi izan zizkieten Udaletxeko Udalbatzaren Aretoan.

Harrera amaitutakoan, Olentzero eta Mari Domingi haientzat bereziki prestaturiko karrozara igo ziren, eta halaxe hasi zuten desfilea, oso ikusgarria eta pertsonaia mitologikoz betea, Boulevardetik hasi eta Donostia erdialdeko kaleetan barrena. Desfilean, 550 bat lagunek hartu zuten parte, 16 taldetan banaturik.

Festak unitateak kudeatzen ditu Donostia auzoetako jaiak egiteko behar diren baimen eta udal zerbitzuak; gainera, azpiegitura eskueran jartzen eta muntaketak koordinatzen ditu, batzorde antolatzaleei eginkizunak errazteko asmoz. Pixkanaka, gure hiriko auzoetako jai-batzordeek beren gain hartuz joan ziren antolatze-lana, eta pandemia aurretik jaian antolatzen zituzten ia guztiak ekin zioten 2022an berriz lan horri.

Gure hirian eta probintzian diren etxe erregionalek berriro ekin zioten lehendik urtean zehar antolatu ohi zituzten ekitaldiak antolatzeari. Guztira, zazpi ospakizun egin ziren: bat orokorra, **Etxe Erregionalen XXXVI. Eguna**, Konstituzio Plazan, maiatzaren 29an; bi, Galiziako Etxeak antolatuak, beste bi Errioxako Etxeak antolatuak, eta azkenik beste bi Centro Extremeñon.

Gure hiriak gaur egun dituen senidetza-harremanei dagokienez, jarduera bakar bat egin zen, **Marugame** japoniar hiriarekin trukatu ohi diren plaka-garaikurrak bidaltzea, bi hirietan egin ziren haurren kirol lehiaketetan sariak emateko.

KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

Donostia Kulturak webgunea estreinatu zuen 2022an. Horra komunikazio-estrategiaren bide nagusia, **Donostia Kulturak 2022an estreinatu zuen plataforma digital berria**. Erakundearen beste webguneak bere baitan hartzen dituen webgune nagusiak bere eginkizunari erantzun dio horrela, hau da, kultura herriarrengana hurbiltzeari, era askotako ikus-entzuleei erantzunez. Modu proaktiboan, kultur zerbitzu nagusiekiko loturak hobetu zituen (*ticketing*, DK baziak eskainitako arreta, ikastaroaren kudeaketa edo liburutegietako katalogoaren kontsulta). Harrezkero, batetik, DK ekosistema osoak

Este año, Olentzero y Mari Domingi llegaron a Donostia el día 24 de diciembre por la mañana y lo hicieron al Caserío Katxola en Aiete. Desde allí realizaron su visita a los barrios. Tras su llegada al ayuntamiento, las niñas y niños que quisieron entregar sus cartas y saludar a Olentzero y Mari Domingi pudieron hacerlo en el Salón de Plenos del ayuntamiento.

Finalizada la recepción, Olentzero y Mari Domingi se dirigieron a la carroza preparada especialmente para ellos y dar así comienzo a un desfile muy vistoso y lleno de personajes mitológicos que partió desde el Boulevard y recorrió las calles del centro de la ciudad. En el desfile participaron alrededor de 550 personas en un total de 16 grupos.

La unidad de fiestas gestiona los permisos y servicios municipales necesarios para la celebración de las diferentes fiestas, además de aportar infraestructuras y coordinar los montajes de las mismas, con el objeto de facilitar la labor de las comisiones organizadoras. Poco a poco, las distintas comisiones de fiestas de los barrios de nuestra ciudad fueron retomando su labor organizativa y este año casi todas las que organizaban las fiestas con anterioridad de la pandemia las retomaron.

También las diferentes casas regionales establecidas en nuestra ciudad y en la provincia retomaron la organización de los eventos que a lo largo del año estaban acostumbrados a organizar. Fueron un total de 7 las celebraciones realizadas: una con carácter general, el **XXXVI Día de las Casas Regionales** que se celebró en la plaza de la Constitución el día 29 de mayo; dos por parte de la Casa de Galicia; otras dos organizadas por la Casa de la Rioja y finalmente dos más por el Centro Extremeño.

En cuanto a las relaciones de hermanamiento que nuestra ciudad mantiene a día de hoy, la única actividad que se realizó fue el **envío de las placas-trofeo** que se suelen intercambiar con la ciudad japonesa de Marugame para premiar a diferentes competiciones deportivas infantiles que se desarrollaron en ambas ciudades.

COMUNICACIÓN E IMAGEN

Donostia Kultura estrenó web. Principal vehículo de la estrategia de comunicación de la entidad, **Donostia Kultura estrenó nueva plataforma digital en 2022**. La web paraguas de la entidad respondía a su misión de acercar la cultura a la ciudadanía, a través de sus múltiples públicos. De forma proactiva, mejoró las interrelaciones con servicios culturales troncales como son *ticketing*, la atención de los socios DK, la gestión de los cursos o la consulta del catálogo bibliotecario. Desde entonces, por un lado, todo el ecosistema DK (más de 10 sitios web) comparte las ventajas



I.II. Erakundearen egoera

Emaitz-a-kontua

2022eko Emaitz-a-kontuak 14.507.014,13 euroko emaitza negatiboa egotzi du; 2021eko emaitza negatiboarekiko (12.592.549,62 euro) %15,20ko igoera suposatzen duelarik.

Personal gastuak %4,35ko igoera izan zuen 2021arekin alderatuta. Alde batetik soldatu igoeren ondorioz eta bestetik produktititate paga ordaindu izanaren ondorioz.

Ustiapenerako beste zenbait gastuk 2021arekin alderatuta 2.238.161,61 euro egin zuten gora, %36,76 alegia. Igoera horren arrazoi nagusia festetako hainbat jarduera pandemia aurreko egoerara itzuli izanak azaltzen du, esanguratsuenak aipatze arren: Aste Nagusia, su artifizialak, auzo festak, iñauteriak eta Santo Tomás feria. Beste alde batetik 2022an Argiartearen jaialdia ospatu zen eta horrek ere eragin zuzena izan zuen gastuaren igoeran. Kultur etxeetako jardueran ere igoera izan zen (ikastaroak, kale antzerkia, Donostia apain, zikloak, etab.), baina liburutegi zerbitzuan ere (liburuaren eguna, ipuinaren ordua, etab.).

Sarrerei dagokionez, negozio zifraren zenbateko garbiak 2021arekiko %13,14ko igoera izan zuen. Alde batetik ikastaro sarreren igoerari dagokio, eta bestetik soldaten igoeren ondoriozko enpresen arteko fakturazioari dagokio. Ustiapeneko beste zenbait sarrerek ere igoera izan zuten, 156.640,66 eurokoa alegia., 2021arekiko %90,23.

Egoera balantzea

Erakundearen balantzean gertatutako aldaketa nagusiak honako hauek dira:

Aktiboa

- %14,15eko igoera zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontu batzuetan, batez ere taldeko enpresak, bezeroak eta administrazio publikoarekin beste zenbait kredituren igoeraren ondorioz.
- Taldeko erakundeetan epe laburreko inbertsiotan %19,64ko igoera.

Pasiboa

- Erakunde elkartuekin epe laburreko zorretan %64,34ko jeitsiera.
- Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuetan %11,87ko jeitsiera.

I.II. Situación de la Entidad

Cuenta de Resultados

La Cuenta de Resultados de 2022 arrojó un resultado negativo de 14.507.014,13 euros, lo que supone un incremento del 15,20 % con respecto a las pérdidas del ejercicio 2021 (12.592.549,62 euros).

El gasto de personal se incrementó en un 4,35 % con respecto al 2021 como consecuencia del incremento de retribuciones y de la paga de productividad.

Los gastos de explotación se incrementaron en 2.238.161,61 euros, un 36,76 % con respecto al 2021. El hecho de que muchas de las actividades festivas se realizaran en el escenario pre-pandemia tuvo un impacto directo en el incremento del gasto; por mencionar las principales: la Semana Grande, los fuegos artificiales, las fiestas de barrios, carnavales y la feria Santo Tomás. Por otro lado, en 2022 se celebró el festival Argiartean, que también influyó directamente en el incremento del gasto. También aumentó la actividad de los centros culturales (cursos, teatro de calle, Donostia apain, ciclos, etc.) y en el servicio de bibliotecas (día del libro, hora del cuento, etc.).

En cuanto a los ingresos, el importe neto de la cifra de negocios y otros ingresos de explotación experimentaron un incremento del 13,14% respecto a 2021. Este aumento de ingresos corresponde en gran parte a la facturación entre empresas por aumentos salariales. También subieron los ingresos de explotación, que fueron 156.640,66 euros más altos que en 2021 (90,23%).

Balance de situación

Las principales variaciones habidas en el balance de la entidad son las siguientes:

Activo

- Incremento del 14,15 % en los Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar, como consecuencia de la subida de Clientes, empresas del grupo y asociadas y Otros créditos con las Administraciones Públicas.
- Incremento del 19,64 % en Inversiones en empresas del grupo y asociadas a corto plazo.

Pasivo

- Disminución del 64,34 % en Deudas con empresas del grupo y asociadas a corto plazo.
- Disminución del 11,87 % en Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar.



II. Soziitatearen Egoera Orokorra: hurrengo ekitaldirako helburuak eta aurreikusitako bilakaera.

Elkartearren aldagai ekonomikoen aurreikuspenei dagokienez, 2023ko ekitaldiari begira jarduera mailari eustea espero dela nabarmendu beharko genuke, arrisku edo ziurgabetasun aipagarririk ez dagoelarik.

III. Kudeaketa-txostenetan aurkeztu baino lehen gertatutako jazoerak.

Ez da gertakizun azpimarragarririk jazo ekitaldia itxi eta kudeaketa-txosten hau osatu bitartean.

IV. I+G jarduerak.

2022 ekitaldian erakundeak ez ditu ikerketa eta garapenari buruzko jarduerak egin.

V. Berezko akzioei buruzko informazioa.

Erakundeak ez ditu berezko akzioak eskuratu.

VI. Soziitateak aurre egin beharreko arrisku eta kezkei buruzko informazioa.

Ez dugu erakundeak aurre egin beharreko arrisku edo kezkarik ezagutzen.

Donostia, 2023ko martxoaren 29an

II. Coyuntura General de la Sociedad: objetivos para el próximo ejercicio y evolución previsible.

En cuanto a la previsión de las variables económicas de sociedad, cabe reseñar que las expectativas son las del mantenimiento del nivel de actividad de cara al ejercicio 2023 y sin que existan especiales riesgos e incertidumbres dignos de mencionar.

III. Hechos posteriores hasta la formulación del Informe de gestión.

No se han producido acontecimientos significativos con posterioridad al cierre de ejercicio y previos a la formulación del informe de gestión.

IV. Actividades de I+D.

En el ejercicio 2022 la entidad no ha realizado actividades en materia de investigación y desarrollo.

V. Información Sobre Acciones Propias.

La entidad no ha adquirido acciones propias.

VI. Información sobre riesgos e incertidumbres a los que se enfrenta la Sociedad.

No se conocen riesgos o incertidumbres relevantes a los que se enfrente la entidad.

San Sebastián, 29 de marzo de 2023



Eneko Goia Laso

Lehendakaria/ Presidente



